

JAI BATZORDEA

1.BILERA

Data: 2023-05-07

Ordua: 17:30

Lekua: Bilera gela

Partaideak: Garazi (gaztek), Iker A., Laura (GE), Nagore (Udala) , Mari, Rosario (Bizi Nahi), Asier (Arbelaitz) , Iker M. (Udala) eta Nerea (Kultura)

1. Azken urteko balorazioak+ kontuan izatekoak:

- Tablatua frontoi barrukoa 4*5 muntatzeko jarri beti (batzuetan 4*4koa jarri dugu)
- Pilota markagailuak berritu behar dira.
- Sagardo basoak ez eskatu, badaude.
- Boluntario lanetan ondo zehaztu zer den ekintza bakoitzean egin beharrekoa eta zein orduetan egon behar den eta zeintzuk diren eginbeharrak.
- Ekintza bakoitzeko arduradun zehatza jarri (pertsona) horrek izango du ekintzarako beharrezkoak hartzeaz (tiketak, oharrak etab.)
- Kubiartok eta pitxarrak gainbegiratu eta garbitu festa aurretik.
- Garbigailu bat lortu frontoirako.
- Frontoiko argiteria legezatu (hornidura bakoitzean zein potentzia dugun jakiteko)
- Sarrerako parkinean ura nola jarri aztertu.
- Brigadako lanetan sartu komunen garbiketa egitea.
- Paellako sua ez dabil ondo begiratu eta aurretik ziurtatu gauzak ondo daudela.
- Otordu guztietarako edariak sartuta dauden begiratu.
- Barrakako prezioa negoziatu behar da. Ongizate haurrentzat tiket gehiago eskuratu.
- Ijitoa itxuraldatzea komentatu da, adibidez, hurrengo urteko pregoilariak "Katehorratz" taldekoak badira, zapi edo tokilla bat egitea. [Probak egiteko data jarri \(Nerea\)](#)
- Plazaren antolaketa baloratu; iritzi ezberdinak egon dira, barrakak bertan egotea egoki irizten dutenak eta espazioa gainkargatua zegoela ziotenak.
- Ekintzak herrian gehiago zabaltzeko aukera baloratzea aipatu zen, dena plazan kontzentratzen baita.
- Ekintzaz ekintza arduran bat finkatu (ekintzaren materiala eta egin beharreko guztietaz arduratuko dena)
- Langileek eta Nerearen zerrendan lanak eguneratu (eginda Nerea)
- Argazki boluntarioak aurrez antolatu. Bakoitzak zein ekintza ondo zehaztu.
- Barrakeroek musika izango dutela ziurtatu/ arduraduna.
- [Komentatu da, arkupetan egoten den saltzaileak ez duela baimenik eskatzen eta horrelako salmenta mota ez dela beharrezkoa.](#)
- Jubilatuetako garbigailuaren erabilpen oharrak jarri.
- Publizitatean Zeberio sartu.
- Presiozko mangerarekin mahaia garbitzea festa hasi baino lehen eta ondoren.
- Aurten gaia librea tokatzen da moxorrotarako.

- Pregoilaria: Kateorratz taldea

2. Aurrekontua

Aurtengo aurrekontua 20.000€takoa izango da.

3. Egitaraua

2024ko festetako egitarauaren balorazioa:

IRAILAK 19, OSTEGUNA

17:00 HAUR TAILERRA: [Haurrez ez zuten prestaketarako denbora askorik izan, bezperan hasi baitziren lanean. Ordu beteko ekintza oso eskasa da fundamentuzko zerbait egiteko.](#)

18:00 MAHAI JOKOAK ETA ASKARIA JUBILATUETAN [Oso ondo baloratu da.](#)

IRAILAK 20, OSTIRALA, KUADRILA EGUNA

16:30 ZINTA KARRERA eta ASKARIA: [Zinta bakoitzak zenbaki bat du, eta kontuan izan behar da hori. Zinta hartu eta haurrak sari mahaira zinta eraman behar du. Sari batzuk amaitu ziren eta besteak sobratu, ondo eginez gero koadratzeen dute zintek eta sariak.](#)

18:00 PREGOIA eta IJITTO JAITSIERA (Pregoilaria Ijitto elkarteak) [Katekorratz taldea izango da hurrengo urtean pregoilari.](#)

Ondoren BURUHANDIAK [Ondo baloratu dira.](#)

18:30 BERTSO- POTEOA. Aratz Igartzabal, Ane Beloki eta Eneko Araiztegi. [Saioa oso goibel joan zen, baloratu da egun eta ordu horretan horrelako saioak ez duela tokirik.](#)

21:00 HERRI AFARIA: [Tiket batzuk jasotzea falta da \(lkerrek ditu\)](#)

11:30 ITZAL ERROMERIA [Oso ondo baloratu zen](#)

Goizaldera BATXURI eta TXOKOLATE JANA

IRAILAK 21, LARUNBATA, MOZORRO EGUNA, Gaia: "Lanbideak" [2025ean gaia librea](#)

9:00 GOIZ ERESIA

12:00 BEITIAKO IGOERA: [Txirrinduen kudeaketa modu egokian egin behar da, aurrez txokoan ezin dira utzi.](#)

14:30 PAELLA JANA: [Plater garbiketa eta fidantza kontuari buelta bat eman behar zaio.](#)

17:30 BINGO MUSIKATUA: [Iritzi ezberdinak batzuentzat motza besteentzat luzea. Irabazleei sariren bat ematea proposatu da.](#)

19:00 IJITTO SHOW ETA MOZORROEN DIPLOMA BANAKETA: [Ijitto showko musika lehenago bidaltzeko ardura hartu behar da. Mozorro guztiek aipamenen bat](#)

jasotzea egokia izango litzatekeela proposatu zen baina batzordean hori zaila dela aipatu zen.

20:30 HANBURGESA JANA Oso ondo antolatuta. Erabiltzen den materiala itzuli behar da, zer hartu den apuntatu eta ekintza antolatzen duenaren ardura. Postrea aukerazko platera izatea proposatu zen.

22:00 "SAKATU" ELEKTROTXXARANGA: Oso ondo baloratu zen. Jo ondoren afaldu nahi zuten eta hau aurrez egitea eskatu da. 01:00etan hanburgesak berotzen ez ibiltzeko.

01:00 "POTTOKIS" DJak Iritzi ezberdinak egon dira, orokorrean aipatu da reggeton asko eta euskarazko oso abesti gutxi. Kontuan izan behar dugu hau.

IRAILAK 22, IGANDEA

9:00 GOIZ ERESIA

11:00 PUZGARRIAK Frontoian egin behar izan ziren eguraldia dela eta.

12:00 HAMAIKETAKOA Hemen ere ondo zehaztu zein den ekintzaren eginbeharra eta boluntarioen lana.

15:00 PUZGARRIAK

18:00 HERRIKO PELOTARIEN PELOTA PARTIDA ETA FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALA Oso ondo baloratu da, giro polita. Fronteniseko irabazleei trofeo bat ematea proposatu da. Hurrengo urtera begira, talde mistoak edo gazte bat heldu baten aurka izatea proposatu da.

19:30 IJITTO IGOERA

20:00 SAGARDO DASTAKETA: Tiketak ez omen ziren azaldu eta prest zeuden. Kartelak jaitsi ziren baina tiketak ez.

2025erako programazio proposamena

IRAILAK 18, OSTEGUNA

16:30 HAUR TAILERRA

18:30 MAHAI JOKOAK ETA ASKARIA JUBILATUETAN

19:30 ARAMA/ ITSASONDO DERBYA

-Aramakoekin hitz egin (Nerea) ea prest dauden eta osteguna edo ostirala nahiago duten.

-Gazteek beraien artean hitz egin irizpideak zehazteko. (Garazi)

IRAILAK 20, OSTIRALA, KUADRILA EGUNA

16:30 ZINTA KARRERA eta ASKARIA

18:00 PREGOIA eta IJITTO JAITSIERA

Ondoren BURUHANDIAK

18:30 ELEKTROTXXARAGAN EDO FUTBOL PARTIDA

21:00 HERRI AFARIA

- Katering ezberdinen informazio ekarri hurrengo bileran (Nerea)

11:30 KONTZERTUAK

- Oilar beltzak 2700€+BEZ (musika ekipoa barne) Ikerrek bazpare erreserbatu zituen.
- Kaleko Urdangak (prezio lagunkoia egiteko aukera) Laurak konfirmatu.
- Añube, presupuestoa eskatu (Nerea)
- Arene6, aurrekontua eskatu (Nerea)

Komentatu da, adibidez, Añube ekartzen bada eta horretarako ekipoa alokatu behar bada bi talde ekartzea ekipoa aprobetxatzeko.

Wasapez erabakiko dugu zein talde izango den, kontratazioa ahalik eta azkarrenen egiteko.

Goizaldera BATXURI eta TXOKOLATE JANA

IRAILAK 21, LARUNBATA, MOZORRO EGUNA, Gaia: "librea"

9:00 GOIZ ERESIA

12:00 BEITIAKO IGOERA

14:30 PAELLA JANA

Ea gazteek iaz bezala garbitu nahi duten, ez badute nahi herriko beste eragileren batek nahi badu edo bestela norbait kontratatzeke ere proposatu da. Hurrengo bileran zehazteko.

XXX TARTE HONETAN ZER?

Proposamen hauek bota dira:

- Triviala (ume eta helduentzat)
- Herri Kirol txapelketa
- Futbolen txapelketa
- Marrazketa tailerra haurrentzat.

19:00 IJITTO SHOW ETA MOZORROEN DIPLOMA BANAKETA

20:30 HANBURGESA JANA

22:00 ERROMERIA

- Balantza
- Hamarratz (Ikerrek galdetuko die)

Hurrengo bilerarako proposamen zehatzak eta aurrekontuak eraman erabakitzeke.

01:00 "POTTOKIS"

Ea prest dauden galdetu. Egonez gero, musika nahasketa handiagoa eta reggaetan gutxiago jartzea eskatu behar zaie. (Nerea)

IRAILAK 22, IGANDEA

9:00 GOIZ ERESIA

11:00-13:00 PUZGARRIAK FRONTOIAN

12:00 HAMAIKETAKOA

15:00-17:00 PUZGARRIAK

18:00 HERRIKO PELOTARIEN PELOTA PARTIDA ETA FRONTENIS
TXAPELKETAKO FINALA

[Haur pilotariak aurrez izena eman dezatela.](#)

[Frontenisekoei saria eman. Talde mistoak. Izen emate indibiduala eta gero osatu mistoak?](#)

19:30 IJITTO IGOERA

20:00 SAGARDO DASTAKETA.

4. Hurrengo bilera+ besteak

Wasap taldea osatuko da kideekin.
Ekainaren 11an, 17:30etan, bilera gelan.